**Apirila 2006**

# 2006ko lan Hitzarmena: Plataformak entregatu egin dira

Martxoaren 29an, asteazkenean, 2006ko lan hitzarmenaren mahai negoziatzailea bildu zen. Horretan, **sindikatu guztiok entregatu eta azaldu** genituen gure **plataformak**.

**Patronalek** ez zuten ezer ekarri eta dedikatu ziren sindikatuok esandakoa entzun eta jasotzera. Beraz, ez zuten entregatu agiririk ezta ahoz azaldu ere zeintzuk izan daitezkeen bere puntuak negoziaketa berri honetan. **Hartu zuten konpromiso bakarra zera izan zen: hurrengo batzarrean erantzutea sindikatuok planteaturiko zenbait aldarrikapenari.**

**LAB poztu egin da** mahaian ELA sindikatuari **entzuteaz itundutako irakaskuntza mugatu eta arautu egin duen markoa (1992ko eskola ituna) gaindituta dagoela** (LABek bere edukia eskasatzat jo zuen. Dena dela, adierazi behar dugu ere itun horretan jasotako puntuak aurreikusitako neurrian aplikatu egin ez direla). Zentzu honetan, lan hitzarmen berriaren negoziaketa honetan murgildu aurretik (marko horrekin zuzen erlazionaturik dagoen zenbait atal negoziatu baino lehen, hain zuzen ere), marko berria osatuko duten hainbat elementu giltzarri definitu, kuantifikatu eta hitzartu behar dira aldez aurretik; noski, Hezkuntza Administrazioarekin.

Horretarako, **LABek ondoko apustuaren alde egiten du: irakaskuntzako itundutako ikastetxeentzat,** eta mahai negoziatzaile honetatik kanpo, **ezinbestez, Administrazioarekin, solaskide nagusi gisa, euskal irakaskuntzaren sektore honetarako onuragarria eta funtsezkoa izango den esparru negoziatzaile berri bat eratzea**.

Tamalez, gertakizun hori eman ezean, betiko eskemetan ibiliko ginateke, aurreko eskola itunaren basatzan lardaskatuta geldirik. Hau da, Administrazioak emandako diru kopuru apurra kudeatzen, eta Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publikoekiko lan baldintzen (soldatak, lanaldiak, ratioak, euskalduntzea...) homologazio benetako prozesua ezin abiatuz.

**LAB badago prest beste sindikatu zein patronalekin indarrak biltzeko, euskal irakaskuntzak aurre egin behar dituen erronkak,** eta horren arabera**, azken hauek behar duten benetako homologazio prozesurako neurriak hartzeko proposamena defenditzeko asmoz.** Prozesu horretan epeak finkatzea ez ezik Administrazioarekin definituriko eta itundutako konpromiso argiak jaso behar dira ere.

Baina, **goian aipatutakoak ez du esan nahi patronalekin negoziazioan ezin dela jarraitu edo aurrekoa argitu arte itxaron beharra dagoela**. **Ba daude hainbat arlo** non negoziazioa aurreratu ahal dugun, zeintzuk esklusiboki **patronalen erantzukizuna direla inolako baldintzarik gabe** (eremu funtzionaletan, hobekuntza sozialetan, kontratazioetan, euskalduntzean,...). Arlo guzti horietan -marko berria lortu arte egon barik- aurrerapauso esanguratsuak eman ahal dira. Eta LABek hurrengo batzarretan planteamendu hau defendatuko du patronalen eta beste sindikatuen aurrean, zalantza barik.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI BADUZU DEITU SINDIKATURA!**

**Hurrengo mahai negoziatzailearen batzarra, apirilaren 26an, asteazkenean, burutuko da.**



| Herrialdea | Postaelektronikoa | Helbidea | Telefonoa | Fax |
|---|---|---|---|---|
| Baiona | baiona@labsindikatua.org | 13 Marengo karrika-64100 | 003305 59595020 | 0330559595021 |
| Bilbo | irakaskuntzabizkaia1@labsindikatua.org | Rekalde Zumd, 62-behea-48010 | 944706924 | 944706909 |
| Donostia | irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatua.org | Sanbladi, 1 Behea -20013 | 943458562 | 943472709 |
| Gasteiz | irakaskuntzaaraba@labsindikatua.org | Bueno Monreal,10-behea-01001 | 945259544 | 945258039 |
| Iruñea | irakaskuntzanafarroa@labsindikatua.org | Marcelo Zelaieta 75, B3 eraikina; atea 2A, bulego 72; 31014 | 948210422 | 948221276 |

www.labsindikatua.org

**Apirila 2006**

# Convenio Colectivo 2006: Las plataformas reivindicativas han sido entregadas

La mesa negociadora del convenio colectivo se reunió el pasado miércoles, 29 de marzo. En esa reunión los sindicatos entregamos y explicamos nuestras plataformas.

**Las patronales** no trajeron ninguna propuesta concreta. Únicamente se dedicaron a escuchar y recoger lo manifestado por la parte sindical. Por tanto, no entregaron documento alguno ni explicaron verbalmente cuáles son sus puntos a negociar en este nuevo convenio. **El único compromiso adquirido se circunscribe a responder en la próxima reunión al conjunto de reivindicaciones planteadas.**

**LAB se congratula de escuchar** al sindicato ELA que **da por superado el marco (pacto escolar del año 1992) que ha limitado y regulado la enseñanza concertada en estos últimos años** (LAB considero su contenido insuficiente. De cualquier manera, eso no quiere decir que los puntos del mismo hayan sido satisfechos en la medida prevista). En este sentido, antes de sumergirnos en la negociación del nuevo convenio (en aquellos apartados directamente afectados en la disposición de un nuevo marco) se ha de definir, cuantificar y pactar con la Administración Educativa los elementos clave que vayan a conformar el marco mencionado.

Para ello, **LAB hace la siguiente apuesta: la configuración indefectiblemente para los centros concertados de enseñanza,** fuera de esta mesa negociadora, **de un nuevo espacio negociador con la Administración, en calidad de principal interlocutor. Debe ser un espacio básico y útil para este sector de la enseñanza vasca**.

Desgraciadamente, si no se produjera esa contingencia, estaríamos enfangados en los esquemas de siempre (pacto escolar anterior). Gestionando las insuficientes partidas que la Administración ofrece, y sin poder poner en marcha un verdadero proceso de homologación (sueldos, jornadas, ratios, euskaldunización,…) de las condiciones laborales para con los centros públicos dependientes del Departamento de Educación

**LAB está dispuesto a unir fuerzas tanto con el resto de sindicatos como con las patronales, al objeto de defender una propuesta que adopte las medidas para un verdadero proceso de homologación, necesario en función de los desafíos a afrentar por la enseñanza vasca**. En ese proceso se deben establecer tanto los plazos como aquellos compromisos definidos y pactados meridianamente con la Administración

Pero, **lo arriba mencionado no significa que no se pueda continuar negociando con las patronales o que se deba estar esperando hasta aclarar todo lo anterior. Existen ciertos capítulos** donde se puede avanzar en la negociación, ya **que son exclusivamente responsabilidad de las patronales sin ningún otro condicionamiento** (ámbito funcional, mejoras sociales, contrataciones, euskaldunización,…). En todos esos ámbitos se pueden dar pasos significativos –sin estar a la espera de conseguir ese nuevo marco-. LAB, en las próximas reuniones convocadas, defenderá este planteamiento ante las patronales y resto de sindicatos, sin ninguna duda.

## ¡Para más información llama al Sindicato!

## Próxima reunión de mesa negociadora, 26 de abril, miércoles.


| Herrialdea | Postaelektronikoa | Helbidea | Telefonoa | Fax |
|---|---|---|---|---|
| Baiona | baiona@labsindikatua.org | 13 Marengo karrika-64100 | 003305 59595020 | 0330559595021 |
| Bilbo | irakaskuntzabizkaia1@labsindikatua.org | Rekalde Zumd, 62-behea-48010 | 944706924 | 944706909 |
| Donostia | irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatua.org | Sanbladi, 1 Behea -20013 | 943458562 | 943472709 |
| Gasteiz | irakaskuntzaaraba@labsindikatua.org | Bueno Monreal,10-behea-01001 | 945259544 | 945258039 |
| Iruñea | irakaskuntzanafarroa@labsindikatua.org | Marcelo Zelaieta 75, B3 eraikina; atea 2A, bulego 72; 31014 | 948210422 | 948221276 |

www.labsindikatua.org